

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIK

Noaingo institutuak ikasleen eskola kaleratzeak gizarte lanengatik ordezkatuko ditu

Elortzibar DBHI Hezkuntza departamentuak jada beste hainbat ikastetxetan garatzen den “Kanpo Lana” hitzarmenera gehitu da

Asteartea, 2018.eko ekainak 26

Hezkuntza kontseilari Maria Solanak sinatu du gaur Kanpo Lana hitzarmena Noain zonaldeko oinarritzko zerbitzuen mankomunitatea eta Noain zein Beriango udalekin, Bigarren Hezkuntzako Elortzibar Institutuan bizikidetza hobetzeko programa, hain zuzen ere. Ikastetxean bertan egindako ekitaldian, kontseilariarekin batera izan dira Jesús María Erburu, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakaria; Noaingo alkate Alberto Ilundain eta Beraineko alkate José Manuel Menéndez.



Solana kontseilaria Noain, Berian eta Elortzibar DBHIko ordezkariekin.

Elortzibar aldeko, Beriain eta Monrealeko ikasleak hartzen ditu Elortzibar DBHI Institutuak, hori dela eta sinatu da “Kanpo Lana” programaren hitzarmena tokiko hainbat udaletako ordezkariekin.

Hezkuntza departamentuak jada beste hainbat institututan abian duen programaren bitartez, Elortzibar institutuak ere, jarrera desegokiagatik ikasgeletatik ikasleak kaleratu ordezkari gize lanak proposatuko ditu. Hartara, orain arte erabilitako neurrien lekuan ikasleen jarrera hobetzeko neurri baikorrak erabiliko dira. Izan ere, “Kanpo Lana” programaren helburuen artean daude ikasleei bestelako giroetan murgildu eta laguntza zein elkarlanerako aukera eskaintzea, bestelako gize errealitateak erakutsi eta euren ikasketekin aurrera jarrai dezaten motibatzen dituzten ekintzak bultzatu nahiz etorkizunean hartuko duten bidean orientagarri izango zaizkien aukerak eskaintzea.

Institutuak, Oinarritzko Gizarte Zeribtzuen Mankomunitatearekin batera, ikasle bakoitzaren egoera aztertuko du banaka eta euretako bakoitzari bideratutako plana ezarriko die, egin beharreko ekintzak zein epeak zehaztuz. Ikasleak behin ekintzak garatuta bere esperientzia jasoko duen memoria aurkeztu beharko dio arduradunari edo ikastetxeko ikasketa buruari.